Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

**RESOLUCIÓN 62/08 de 2 DE SEPTIEMBRE, DEL PRESIDENTE DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS POR LA QUE SE CONVOCA UN PROCESO SELECTIVO PARA LA CREACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE LICENCIADOS EN ECONÓMICAS Y /O ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS.**

**RESULTANDO** que en ejecución de la Planificación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, y del Plan de trabajo anual para 2009, se van a derivar necesidades puntuales e inmediatas de personal destinado a auxiliar en los trabajos de auditoria.

**CONSIDERANDO** que es preciso crear una bolsa de trabajo a fin de contar con un número de personas disponibles para prestar servicios en régimen de funcionario interino por programa o contratado laboral y que cumplan con los requisitos necesarios para llevar a cabo los trabajos de auxiliar de auditoria, caso de ser necesario.

**CONSIDERANDO** que para la realización de algunos trabajos es necesario que la persona a contratar cuente inexcusablemente con conocimientos de euskera perfil 3, no siendo así para otros trabajos en los que dicho requisito no resulta preciso, la bolsa de trabajo que se creará estará integrada por personas que tengan acreditado o acrediten el perfil 3 de Euskera. De tal forma que, según contemplan las bases de la convocatoria, cuando la necesidad a cubrir en el TVCP, lo sea con una persona con perfil lingüístico, se realizarán los llamamientos solamente para aquellos que en la bolsa cuenten con el perfil lingüístico, en el orden en que figuren y cuando el perfil no sea necesario el llamamiento será hecho para todas las personas integrantes..

En virtud de lo dispuesto en el artículo 19.1.f de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del TVCP/HKEE.

**RESUELVO**

**Primero**.- Convocar un proceso selectivo a fin de crear una bolsa de trabajo para la contratación temporal de titulados superiores, Licenciados en Económicas y/o Administración y Dirección de Empresas que realicen las funciones propias de los Auxiliares de Auditoria del TVCP.

**Segundo**.- Aprobar las Bases de la convocatoria que se adjuntan como Anexo a la presente Resolución.

**Tercero**.- Nombrar los miembros de la Comisión de Selección con la siguiente composición:

Presidente/a: Un funcionario del TVCP con la titulación propia de los puestos a proveer.

Vocales: Tres funcionarios del TVCP con la titulación propia de los puestos a proveer.
.
Secretario/a: Un funcionario adscrito a la Secretaría General del TVCP

**Cuarto**.- Disponer la publicación de un anuncio de la convocatoria en la prensa diaria y en la página Web del TVCP.

Vitoria-Gasteiz, a 2 de septiembre de 2008

Jesús Álvarez Galdós
Fdo. El Presidente del TVCP

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

**62/08 EBAZPENA, IRAILAREN 2KOA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN LEHENDAKARIARENA. HONEN BITARTEZ, EKONOMIA ZIENTZIETAN EDO ENPRESA ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN LIZENTZIATU DIRENENTZAKO LAN POLTSA ERATZEN DA.**

**IKUSIZ** Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Plangintza eta 2009rako Urteko Lan Plana gauzatuz, unean-uneko eta berehalako beharretara bideratuko dira auditoria lanetan laguntzailetzat destinatutako langileak.

**KONTUAN HARTUZ** beharrezkoa dela lan poltsa bat eratzea, programaz edo lan kontratuz bitarteko funtzionarioaren araubidean zerbitzu egin dezaketen eta —behar izanez gero— auditoriako laguntzailearen lanak egiteko betekizunak betetzen dituzten behar adina pertsona izatearren.

**KONTUAN HARTUZ** lan batzuk egiteko beharrezkoa dela kontratatu beharreko pertsonak, nahitaez, 3. hizkuntza eskakizuneko jakintzak izatea, eta hori ez dela beharrezko halako betekizunik beharrezko ez duten beste lan batzuetarako; eratuko den lan poltsa, horrenbestez, euskarako 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten edo egiaztatzen duten pertsonek osatuko dute. Hartara, deialdiko oinarrietan ezarrita dagoenari jarraituz, Herri-Kontuen Euskal Epaitegian bete beharreko postuak hizkuntza eskakizuna betetzen duen norbait eskatzen badu, poltsaren barruan hizkuntza eskakizuna egina dutenei baizik ez zaie dei egingo, poltsan ageri diren ordenan. Eta hizkuntza eskakizunik behar ez denean, lan poltsako guztiei dei egingo zaie.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Legeko (1/1988 Legea, 1988ko otsailaren 5ekoa) 19.1.f artikuluan ezarritakoari jarraituz,

**EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** Hautaketa prozesu baterako deialdia egitea, lan poltsa bat eratzearren, honako hauek aldi baterako kontratatzeko: goi mailako tituludunak, Ekonomia Zientzietako edo Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziadunak, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko auditoriako laguntzailearen lanak egin ditzaten.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen eranskin gisa doazen deialdiko oinarriak onartzea.

**Hirugarrena.-** Hautaketa Batzordeko kideak izendatzea, osaera hau emanda:

Batzordeburua: Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko funtzionario bat, bete beharreko lanpostuei dagozkien tituluak dituena.

Batzordekideak: Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko hiru funtzionario, bete beharreko lanpostuei dagozkien tituluak dituztenak.

.

Idazkaria: Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Idazkaritza Nagusiari atxikitako funtzionario bat.

**Laugarrena**.- Deialdiaren iragarki bat argitara dadila egunkarietan eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren webgunean.

Vitoria/Gasteiz, 2008ko irailaren 2a

Jesús Álvarez Galdós

Izpta.: Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko presidentea

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

**66/2008 EBAZPENA, IRAILAREN 12-KOA, HKEE-REN LEHENDAKARIARENA, ERROREAK ZUZENTZEKO DENA HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN LEHENDAKARIAREN IRAILAREN 2-KO 62/08 EBAZPENA ALDATUZ, ZEINEN BIDEZ ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN ETA/EDO EKONOMIA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUTAKOEN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA PROZESUA DEITZEN DEN.**

**IKUSIRIK.-** Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariaren irailaren 2ko 62/08 Ebazpenaren I. Eranskinean hainbat akats sumatu direla, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan eta/edo Ekonomia Zientzietan Lizentziatutakoen lan poltsa sortzeko hautaketa prozesua deitzen duena.

**EBATZI DUT**

**Lehenengo**.- Aipatutako I. Eranskina, ondotik zehaztutako edukiaren onestea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 12a

**RESOLUCIÓN Nº 66/2008, DE 12 DE SEPTIEMBRE, DEL PRESIDENTE DEL TVCP POR LA QUE SE CORRIGEN ERRORES MODIFICANDO LA RESOLUCIÓN 62/08 DE 2 DE SEPTIEMBRE DEL PRESIDENTE DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS POR LA QUE SE CONVOCA UN PROCESO SELECTIVO PARA LA CREACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE LICENCIADOS EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS Y/O ECONÓMICAS**.

**VISTO .-** Que se han advertido errores en el Anexo I de la Resolución 62/08 de 2 de septiembre del Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas por la que se convoca un proceso selectivo para la creación de una bolsa de trabajo de licenciados en administración y dirección de empresas y/o económicas.

**RESUELVO:**

**PRIMERO.-** Aprobar el citado Anexo I con el contenido que se especifica a continuación:

Vitoria-Gasteiz, a 12 de septiembre de 2008

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

**OINARRI-ARAUAK, ENPRESA ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN EDO ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUTAKO AUDITOREEN LAN POLTSA BAT OSATZEKO HAUTAPEN PROZESUAREN DEIALDIA ARAUTUKO DUTENAK.**

**1.- <u>Deialdiaren xedea</u>:**

Deialdi honen xedea da, lehiaketa bidez lan poltsa honetarako hautatzea:

**- Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan edo Ekonomia Zientzietan lizentziatutako auditoreak.**

Lan poltsak hau zehaztuko du:
hautatuen lehentasun hurrenkera: oinarri-arau hauetan ezarri diren merezimenduen baremoa zenbatuz aterako da.

**2.- <u>Kontratu mota</u>:**

Zerbitzu harremanen motak, une horretan indarrean diren modalitateen araberakoak izango dira. Kasuan kasu, programako bitarteko funtzionarioa edo aldi bateko kontratua.

**3.- <u>Izangaien betekizunak</u>:**

Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko, beharrezko izango da:

a) 18 urte beterik izatea.

b) Dagozkion eginkizunak egoki betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

**BASES QUE HAN DE REGIR LA CONVOCATORIA DE UN PROCESO SELECTIVO PARA LA CONFORMACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE AUDITORES LICENCIADOS EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS Y/O ECONÓMICAS.**

**1.- <u>Objeto de la convocatoria</u>:**

Es objeto de la presente convocatoria la selección, mediante el sistema de concurso, de una bolsa de trabajo de:

**Auditores - Licenciados en Administración y Dirección de empresas y/o Económicas.**

La bolsa de trabajo determinará:
el orden de prelación de los seleccionados que resulte del cómputo del baremo de méritos contemplados en las presentes bases.

**2.- <u>Tipo de contrato</u>:**

Los tipos de relación de servicios se ajustarán a las distintas modalidades vigentes en cada momento, en su caso, funcionario interino de programa o contrato temporal.

**3.- <u>Requisitos de los candidatos</u>:**

Para tomar parte en el presente proceso selectivo será necesario:

a) Tener 18 años de edad cumplidos.

b) No padecer enfermedad o defecto físico o psíquico que impida el ejercicio normal de las funciones correspondientes.

c) Disziplina espedientearen bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta eginkizun publikoetan aritzeko ezgaiturik ere ez egotea.

d) Ezintasuna edo bateraezintasuna ekarriko lukeen inolako legezko kausaren barruan ez egotea, 53/1984 Legean eta Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 589/1985 Errege Dekretuan aurrikusitakoaren arabera. Hala ere, legezko arau horretan aipatutako aukerabiderako eskubidea erabili ahal izango dute, bateraezintasuna duen kargu publiko edo jarduera pribaturen batean ari direnek.

e) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta/edo Ekonomia Zientzietan lizentziatua izatea, edota hori luzatzeko eskubideak ordainduta izatea.

f) Kontuen fiskalizazioari eta auditoretzari loturiko zereginetan, gutxienez urtebeteko esperientzia izatea, edo auditoretzako masterra izatea.

Izangaiek betebehar horiek guzti-guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko ezarri den epea bukatzen den egunean, eta halaxe mantendu beharko dira harik eta behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena ematen den arte.

c) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de la Administración Pública, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

d) No estar incurso en ninguna causa legal de incapacidad o incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984 y en el R.D. 589/1985, de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio para los que ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible, de ejercitar el derecho de opción a que se refiere la citada norma legal.

e) Hallarse en posesión del título de Licenciado en Administración y Dirección de empresas y/o económicas o haber abonado los derechos para su expedición.

f) Contar con un mínimo de un año de experiencia en tareas relacionadas con la fiscalización y auditoría de cuentas o master en auditoría.

Los aspirantes deberán reunir todas y cada una de las condiciones exigidas en la fecha en que expire el plazo señalado para la presentación de solicitudes, y deberán matenerse hasta la fecha en que se dicte Resolución aprobando la lista definitiva

**4.- Eskabideen aurkezpena:**

4.1.- Hautaketa prozesu honetan parte hartzeko eskabideak Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jaun txit gorenari zuzendurik aurkeztuko dira bertako Idazkaritza Nagusian (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 69,
01008 Vitoria-Gasteiz).

4.2.- Eskabideak aurkezteko epea **2008ko irailaren 26an** bukatuko da.

4.3.- Eskabidearekin batera, deialdian esku hartzeko betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztuko dira, oinarri-arau hauetako 7.3 atalean agindutako moduan. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta behar bezala frogatu ez diren merezimenduak ez dira inola ere baloratuko.

4.4.- Deialdian parte hartu nahi dutenek HKEEko Idazkaritza Nagusiak eskainiko duen eredu-orriaren araberako eskabidea aurkeztu beharko dute. Oinarri-arau hauekin batera doan II. ERANSKINA da eredu-orri hori.

**5.- Izangaien onarpena:**

5.1.- Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondotik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jaun txit gorenak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, HKEEko iragarki taula ofizialean argitaratuko den Erabakiaren bitartez.

5.2.- Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera, interesatuek hamar eguneko epea izango dute bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko.

**4.- Presentación de solicitudes:**

4.1.- Las solicitudes para tomar parte en el presente proceso selectivo se dirigirán al Excmo. Sr. Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y se presentarán en la Secretaría General del mismo C/ Beato Tomás de Zumarraga nº 69, 01008 de Vitoria-Gasteiz.

4.2.- El plazo para la presentación de solicitudes finalizará **el día 26 de septiembre de 2008**

4.3.- A la solicitud se acompañará la justificación documental de los requisitos para tomar parte en la convocatoria y de los méritos alegados, en la forma dispuesta en el punto 7.3 de estas bases. En ningún caso, se valorarán aquellos méritos que no hubieran sido aducidos y debidamente acreditados durante el plazo de presentación de solicitudes.

4.4.- Quienes deseen tomar parte en la convocatoria deberán presentar una solicitud conforme al modelo que será facilitado por la Secretaría General del TVCP, que se une como ANEXO II a las presentes bases.

**5.- Admisión de aspirantes:**

5.1.- Finalizado el plazo de presentación de solicitudes el Excmo. Sr. Presidente del TVCP aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos mediante Resolución que será publicada en el Tablón Oficial de Anuncios del TVCP.

5.2.- A partir del día siguiente a la publicación de la relación provisional de admitidos y excluidos, los interesados dispondrán de un plazo de diez días naturales para formular las reclamaciones que consideren oportunas.

Erreklamazioak HKEEko lehendakari jaun txit gorenaren Ebazpenaren bitartez ebatziko dira. Erabaki hori banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei.

5.3.- Erreklamazioetarako epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi eta HKEEko iragarki taula ofizialean argitaratuko da.

**6.- Epaimahai kalifikatzailea:**

6.1.- Epaimahai kalifikatzailea deialdi honen I. eranskinean zehazten den bezala osatuko da.

6.2.- Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen Ebazpenean izendatuko dira mahaikide guztiak, horiek titularrak izan nahiz ordezkoak izan.

6.3.- Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztiendako Administrazio Jardunbidearen 30/1992 Legearen 28 eta 29. artikuluetan aurrikusitako inguruabarrak suertatzen direnean, mahaikideek uko egin beharko diote parte hartzeari (eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jaun txit gorenari jakinarazi), eta izangaiek errefusatu egin ahalko dituzte.

6.4.- Mahaikide guztiek hitzarekin nahiz botoarekin jardungo dute, idazkariak izan ezik, hark ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako guztien botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, lehendakariaren botoak erabakiko du; eta hura bertan ez balego, mahaikiderik zaharrenarenak.

Las reclamaciones serán resueltas, mediante Resolución del Excmo. Sr. Presidente del TVCP que se notificará de forma individualizada a los interesados.

5.3.- Expirado el plazo de reclamaciones y resueltas éstas, se procederá a la aprobación de la relación definitiva de aspirantes admitidos y excluidos y a su publicación en el Tablón Oficial de Anuncios del TVCP.

**6.- Tribunal Calificador:**

6.1.- El Tribunal Calificador estará constituido en la forma que se determina en el Anexo I de la presente convocatoria.

6.2.- La designación de los miembros del Tribunal, tanto de aquéllos que tengan la condición de titulares como de suplentes se efectuará en la Resolución que apruebe la lista definitiva de aspirantes admitidos y excluidos.

6.3.- Los miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo al Excmo. Sr. Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, y los aspirantes podrán recusarlos, cuando concurran las circunstancias previstas en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

6.4.- Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, salvo el Secretario que no tendrá voto. Las decisiones del Tribunal se adoptarán por mayoría de votos de los presentes, resolviendo, en caso de empate, el del que actúe como Presidente, que lo será, en caso de ausencia del titular, el vocal de mayor edad.

6.5.- Epaimahaia ezin eratuko da, ezta jardun ere, haren kideetarik erdiak bertan ez badaude.

6.5.- El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros.

**7.- Hautatzeko prozedura:**

**7.- Procedimiento de selección:**

7.1.- Izangaiak LEHIAKETA bidez hautatuko dira.

7.1.- La selección de los aspirantes se llevará a cabo mediante el sistema de CONCURSO

7.2.- Lehiaketa.

7.2.- Concurso.

Epaimahaiak alegatzen diren merezimenduak baloratuko ditu, eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko iragarki taula ofizialean argitaratuz ezagutaraziko ditu haiei dagozkien puntuazioak.

El Tribunal evaluará los méritos debídamente acreditados, haciendo públicas las puntuaciones a través de la publicación de las mismas en el Tablón Oficial de Anuncios del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Alegatzen diren merezimenduak, deialdi honen I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera sailkatu eta baloratuko dira.

Los méritos acreditados se clasificarán y puntuarán de acuerdo con el baremo establecido en el Anexo I de la presente convocatoria.

Euskararen ezagutza —3. hizkuntza eskakizuna—, beharrezko betekizuna izango da, kontratazioa eskatzen duen HKEEko sailak betekizun hori ezarri duenean.

El conocimiento del Euskera, perfil 3, constituirá requisito necesario para acceder a aquéllos trabajos en que el Departamento del TVCP que lo solicite haya determinado dicha exigencia.

7.3.- Baremoan aipatutako merezimenduak justifikatzeko, dagokion Administrazio edo enpresak luzatutako jatorrizko egiaztagiria edo jatorrizkoaz egiaztatutako kopia aurkeztuko da. Egiaztagiriak beharrezko datu guztiak izan beharko ditu.

7.3.- La justificación de los méritos recogidos en el baremo, se realizará mediante certificación original o copia compulsada expedida por el órgano competente de la respectiva Administración o Empresa, conteniendo todos los datos necesarios.

- Ikastaro, jardunaldi edo mintegietan parte hartu izana frogatzeko, dagokion erakundeak luzaturiko egiaztagiria edo diploma aurkeztuko da.

- para la justificación de la asistencia a cursos, jornadas, seminarios, se entregará certificación o diploma expedido por la institución correspondiente.

7.4.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea**:** 3. hizkuntza eskakizuna, euskaraz jakitea beharrezkoa duten lanak betetzeko eskatu beharrekoa, honela egiaztatuko da:

> Hizkuntza eskakizun hori, edo goragokoa, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 32. artikuluan eta hurregoetan ezarritako edozein eratan egiazta daiteke.

**8.- Hautatuen zerrenda:**

8.1.- Lehiaketaren behin betiko sailkapen hurrenkera bi alderdik zehaztuko dute: batetik, merezimenduen baremoko ataletan lortzen diren puntuen baturak; eta, bestetik, zerrenda horretan bertan, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua izateak.

8.2.- Puntu kopuruan berdinketarik gertatuz gero, epaimahai kalifikatzaileak buruz buruko elkarrizketa izan ondoren erabakiko du nor gailenduko den.

8.3.- Arestian adierazi bezala sailkapen hurrenkera zehaztu ondoren, epaimahaiak izangai hautatuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du HKEEko iragarki taula ofizialean, puntu kopuruaren hurrenkerari jarraikiz eta ea izangaiak 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua duen adieraziz. Hautatuen behin-behineko zerrenda hori argitaratu eta biharamunetik aurrera, interesatuek hamar eguneko epea izango dute, bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Erreklamazioetarako epea bukaturik eta aurkeztu direnak ebatzi ondoren, Epaimahaiak izangai hautatuen behin betiko zerrenda argitaratuko du, eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jaun txit gorenari igorriko dio.

7.4.- Acreditación perfil lingüístico: La acreditación del perfil lingüístico 3 exigible para cubrir los trabajos para los que el conocimiento del euskera sea necesario, se llevará a cabo a través de:

> La acreditación del perfil lingüístico o el superior en cualquiera de las formas previstas en el artículo 32 y sgs. del Decreto 86/1997de 15 de abril.

**8.- Relación de seleccionados:**

8.1.- El orden de clasificación definitiva del Concurso vendrá determinado de un lado por la suma de las puntuaciones obtenidas en los distintos apartados del baremo de méritos. Y por otro lado, dentro de la misma relación, por aquéllos integrantes con perfil lingüístico 3.

8.2.- En caso de producirse empate en la suma de las puntuaciones obtenidas, se dirimirá a favor del aspirante que determine el Tribunal calificador tras la celebración de la entrevista personal.

8.3.- Una vez determinado el orden de clasificación en la forma indicada, el Tribunal hará pública en el Tablón Oficial de Anuncios del TVCP la relación provisional de aspirantes seleccionados, por orden de puntuación, consignando la condición de si el aspirante posee perfil 3 acreditado . A partir del día siguiente al de la publicación de la precedente relación provisional de seleccionados, los interesados dispondrán de un plazo de diez días naturales para formular las reclamaciones que consideren oportunas.

Expirado el plazo de reclamaciones, y resueltas las que, en su caso, se hubieran presentado, el Tribunal hará pública, la relación definitiva de aspirantes seleccionados, y elevará dicha relación al Excmo. Sr. Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**9.- Agirien aurkezpena:**

9.1.- Aldi baterako kontratua formalizatu aurretik, izangai deituak ondotik zehazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Idazkaritza Nagusian, deialdian eskatzen diren baldintza eta betebeharrak egiaztatzeko:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

b) Zinpeko aitorpena, disziplina espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik bereizi ez dutela, eginkizun publikoetan aritzeko ezgaiturik ez dagoela, eta Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritako ezintasun edo bateraezintasuna ekartzen duten legezko kasuen barruan ez dela aurkitzen adierazten duena.

c) Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.

**9.- Presentación de documentos:**

9.1.- Previamente a la formalización del correspondiente contrato temporal, el candidato llamado presentará en la Secretaría General del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas los documentos acreditativos de las condiciones y requisitos exigidos en la convocatoria que se detallan a continuación:

a) Fotocopia del documento nacional de identidad.

b) Declaración jurada de no estar separado por causa de expediente disciplinario del servicio de la Administración Pública, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas, así como de no hallarse incurso en alguna de las causas legales de incapacidad o incompatibilidad previstas en la Ley 53/1984, de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

c) Fotocopia compulsada del título exigido para tomar parte en la convocatoria.

d) Mediku egiaztagiri ofiziala, dagozkion eginkizunak egitea galarazten dion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez duela ziurtatzen duena.

9.2.- Aipatutako epearen barruan, ezinbesteko kasuak salbu, agiri horiek aurkezten ez dituztenak edota horiek aztertuta, hirugarren oinarrian emandako betebeharretakoren bat huts egiten dutela irizten zaienak, edota lanpostua betetzeko behar den gaitasun fisiko edo psikikorik ez dutenak, ezin izango dira izendatu, eta lan poltsatik kanporatuta geratuko dira besterik gabe.

**10.- <u>Gorabeherak</u>:**

Epaimahai kalifikatzaileak sortzen diren zalantzak ebatzi eta beharrezko erabakiak hartu ahalko ditu, oinarri hauek aurreikusten ez duten guztian hautaketa prozesua behar den bidetik joan dadin.

Deialdi honi, deialdi honen oinarriei eta horietan oinarritzen diren administrazio egintza guztiei aurka egin ahalko zaie Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztiendako Administrazio Jardunbidearen 30/1992 Legean (1999ko urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatua) aurreikusitako epeetan eta moduan, betiere Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeak horren gainean agintzen duena gogoan hartuta.

d) Certificado médico oficial acreditativo de no padecer enfermedad ni defecto físico o psíquico que le impida el desempeño de las correspondientes funciones.

9.2.- Quienes dentro del plazo indicado, y salvo causa de fuerza mayor, no presentasen la referida documentación o del examen de la misma se dedujera que carecen de alguno de los requisitos señalados en la base tercera o no llegasen a reunir la aptitud física o psíquica exigible para el desempeño del puesto, no podrán ser designados, quedando automáticamente excluidos de la bolsa de trabajo.

**10.- <u>Incidencias</u>:**

El Tribunal Calificador podrá resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso selectivo en todo lo no previsto en estas bases.

La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquéllas y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados, en los plazos y forma previstos en la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común modificada por Ley 4/99 de 13 de Enero y teniendo en cuenta lo dispuesto al respecto por Ley 1/1988, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

**11.- Lan poltsen funtzionamenduari buruzko arauak:**

11.1.- HKEEko atal eskumendunak, sailek egindako eskaeren arabera, aldi baterako kontratazioa egitea edo programako bitarteko funtzionarioa izendatzea erabakitzen duenean, hautatuak prest dauden kontsultatuko du, interesatuak horren berri izango duela ziurtatuko dion edozein bide erabilita.

Eskaera egiten denean, beharrezko betekizuna hizkuntza eskakizuna egiaztatua duen pertsona izatea bada, egoera horretan egotea egiaztatu zuten izangai haiei soilik luzatuko zaie deialdia.
Deialdia egiteko, interesatuaren helbidetzat hartuko da izangaiak eskabide orrian adierazitako hura, nola eta gerora bestelakorik adierazi ez duen, berariaz eta frogagarriro agintari dei-egileari jakinaraziz. Jakinarazpena ontzat emango da interesatuak adierazitako helbidean dagoen zeinahi pertsonak horren ardura bere gain hartzen badu; orobat, jakinarazpena gauzatutzat hartuko da bigarren aldiz saiatu eta jakinarazterik izan ez bada.

Lehentasun hurrenkerari jarraikiz, kontratazio eskaintza onartzen duen lehenbiziko izangaia kontratatuko da; eta beharrezko baldintza baldin bada, hizkuntza eskakizuna duen hura.

**11.- Normas sobre el funcionamiento de las bolsas de trabajo:**

11.1.- Cuando el órgano competente del TVCP, según las peticiones de los Departamentos, decida realizar una contratación temporal o nombramiento de funcionario interino por programa, procederá a consultar la disponibilidad de los seleccionados, por cualquier medio que permita tener constancia de su recepción por el interesado.

En caso de que la petición, sea de una persona con el perfil lingüístico como requisito necesario, el llamamiento se realizará únicamente a aquéllos integrantes que acreditaron tal condición.
A los efectos del llamamiento, se entenderá como domicilio del interesado el que el aspirante hubiera señalado en su instancia, salvo que con posterioridad manifieste otro distinto, comunicándolo de forma expresa y fehaciente a la Autoridad convocante. Se entenderá realizada la notificación si se hiciera cargo de ella cualquier persona que se encuentre en el domicilio señalado por el interesado, igualmente se entenderá realizada la notificación si intentada por segunda vez no se hubiera podido practicar.

Será contratado el primer candidato, que según el orden de prelación acepte la oferta de designación , y si fuera requisito necesario que cuente con el perfil lingüístico.

11.2.- Aurreko puntuan adierazi bezala, Idazkaritza Nagusiak kontsulta egiten dien egunetik aurrera hiru laneguneko epea izango dute izangaiek lanerako prest dauden baieztatzeko edo, bestela, dei horri uko egiten diola jakinarazteko. Epe horren barruan berariaz eta idatziz erantzuten ez dutenak, automatikoki kanporatuko dira lan poltsatik.

11.2.- Los candidatos quedan obligados a comunicar su disponibilidad o, en su caso, su renuncia a dicho llamamiento en el plazo de tres días hábiles contados desde la recepción de la consulta realizada por la Secretaría General a que se refiere el punto anterior. Quienes no respondieran expresamente y por escrito en ese plazo, quedarán excluidos automáticamente de la bolsa de trabajo.

11.3.- Eskaintzaren deiari berariaz uko egiten dioten izangaiek, uko hori justifikatu beharko dute. Bestela, lan poltsatik kanpo geratuko dira.

11.3.- Los candidatos que rehusaran expresamente el llamamiento a la oferta deberán justificar dicha negativa en caso contrario quedarán excluidos de la bolsa.

11.4.- Kontratua edo izendapena bukatu eta gero, kontratatu ohia aurreragoko deietarako hartuko da kontuan, hasierako hurrenkera berean.

11.4.- Una vez finalizado el correspondiente contrato o nombramiento, el ex-contratado será tenido en cuenta para futuros llamamientos en la posición que inicialmente ocupó.

11.5.- Azken kontratazioa edo izendapena aurreko hilabetean izenpetu denean, ez da beharrezkoa HKEEko Idazkaritza Nagusiak hemen agindutako izapide guztiak egitea —poltsaren hasieratik deitzen hastea—. Kasu horretan, azken kontratatu dena abiaburu hartuta egingo dira deiak.

11.5.- No será necesario que la Secretaría General del TVCP realice todos los trámites aquí establecidos -inicio de los llamamientos desde el principio de la bolsa- si el último contrato o nombramiento se ha suscrito dentro de los treinta días naturales anteriores, en cuyo caso se procederá a hacer el llamamiento desde la posición del último contratado.

Era berean, kontratatuetariko batek bere zerbitzuak emateari utzi zionetik hilabete bat baino gehiago igaro ez bada eta beste kontratazio baten beharra badago, HKEEk zuzenean kontratatu ahalko du kontratatu ohia, horretarako beharrezko betekizun guztiak beteak baditu.

De igual modo, en el caso de que no hubiese transcurrido más de un mes desde que alguno de los contratados dejase de prestar sus servicios y se precisase una nueva designación , el TVCP podrá proceder de forma directa a la nueva designación del ex funcionario, si cuenta con todos los requisitos necesarios para ello.

**12.- <u>Kontratatuen baldintza ekonomikoak eta eginkizunak</u>:**

Kontratatuek 21. mailarako ezarritako ordainsariak —auditoriako laguntzaileei dagozkienak— jasoko dituzte, eta lanpostu horri bere monografian ezartzen zaizkion eginkizunak egin beharko ditu.

Noiz edo noiz, 24. mailako eginkizunak egiteko ere izenda daitezke.

Hala egokituz gero, eta 26. mailako plantillako plazak betetzeko indarrean den auditore poltsa bukatu bada, poltsa hau horko 3. lehentasuneko poltsatzat hartuko da.

**12.- <u>Condiciones económicas de los contratados y funciones</u>:**

Los contratados percibirán las retribuciones correspondientes al N. 21 propias de los auxiliares de auditoría y realizarán las funciones que para dicho puesto de trabajo se establecen en la monografía del mismo.

Ocasionalmente podrán también ser designadas para realizar funciones de nivel 24.

En su caso y si la bolsa de auditores vigente para cubrir plazas de plantilla, nivel 26 estuviera agotadoa ésta nueva se constituirá como bolsa de prioridad 3 en aquélla .

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# I. ERANSKINA

## AUDITOREA (ENPRESA ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO EDO EKONOMIA ZIENTZIETAKO LIZENTZIADUNA)

## A) MEREZIMENDUEN BAREMOA

Merezimenduen atalean, ez dute punturik jasoko gutxieneko betekizun gisa prozedura sartzeko balioesten diren merezimenduek (hau da, urtebeteko esperientzia edo auditoriako masterra), oinarri hauetako 3.f) idatz zatian zehaztutakoari jarraituz.

Justifikatu beharreko merezimenduak, honako atal hauetako batean baizik ez dira kontuan hartuko:

**1.-** Deialdi honen dataren aurretiko bost urteetan goi mailako teknikari-auditore gisa Herri-Kontuen Euskal Epaitegian edo OCEXean zerbitzu egiteagatik, 1 puntu hilabeteko edo hilabete zatiko.

LEHEN ATAL HONETAN, GEHIENEZ 10 PUNTU LOR DAITEZKE**.**

**2.-** Deialdi honen dataren aurretiko bost urteetan auditoriako enpresa pribatuetan zerbitzu egiteagatik:
Goi mailako teknikari auditore gisa: <u>0,50 puntu,</u> hilabeteko edo hilabete zatiko.
Erdi mailako teknikari gisa: <u>0,25 puntu,</u> hilabeteko edo hilabete zatiko.

**3.-** Deialdi honen dataren aurretiko bost urteetan goi mailako teknikari gisa Administrazio publikoan zerbitzu egiteagatik, kontuak fiskalizatzeari lotutako arloetan (aurrekontuak, kontabilitatea, kontu-hartzailetzako zerbitzuak, edo antzekoak): <u>0,50 puntu,</u> hilabeteko edo hilabete zatiko.

BIGARREN ETA HIRUGARREN ATALEN ARTEAN, GUZTIRA, 9 PUNTU LORTU AHALKO DIRA GEHIENEZ.

**4.-** Goi mailako teknikariaren plazak oposizioaren edo lehiaketa-oposizioaren bidez Edozein Administrazio publikotan edo OCEXean hautaketa proba guztiak gainditzeagatik: 2 puntu, deialdiko.

LAUGARREN ATAL HONETAN, GEHIENEZ 4 PUNTU LOR DAITEZKE.

**5.-** Bete behar diren lanpostuetako lanarekin zuzenean erlazionatutako heziketa ikastaroak, honela balioztatuko dira: 0,02 puntu, kontuen auditoriaren eta Administrazio publikoaren gaiekin erlazionatutako heziketa orduko.

BOSGARREN ATAL HONETAN, GEHIENEZ 6 PUNTU LOR DAITEZKE.

**6.-** Izangaiarekiko elkarrizketa: 1 puntu.

**7.-** Euskararen ezagutza:

3. hizkuntz eskakizuna edo altuagoa, edo titulazio baliokida egiaztatzen duten haiei, 6 puntuko puntuazioa emango zaie.
2. hizkuntz eskakizuna edo altuagoa egiaztatzen duten haiei, 3 puntuko puntuazioa emango zaie.
1. hizkuntz eskakizuna egiaztatzen duten haiei, 1,5 puntuko puntuazioa emango zaie.

Hizkuntz eskakizunen aurreko balorazioak ez dira metagarriak. Egiaztatutako hizkuntz eskakizun altuenari dagokion puntuazioa soilik izango da balorazio-gai.

**B) EPAIMAHAIA**

Batzordeburua:
- Auditorea den funtzionario bat.

Batzordekideak:
- Auditorea den funtzionario bat.
- Auditorea den funtzionario bat.
- Auditorea den funtzionario bat.

Idazkaria:
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Idazkaritza Nagusiari atxikitako funtzionario bat.

**ANEXO I**

**AUDITOR-LICENCIADO EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS Y/O ECONOMICAS**

## A).BAREMO DE MÉRITOS

No se puntuarán dentro del apartado de méritos aquéllos que se valoren para el acceso al proceso como requisito mínimo, esto es un año de experiencia o un master en auditoria, tal y como se recoge en el punto 3f) de estas bases.

Los méritos a justificar, sólo se tendrán en cuenta en uno de los apartados siguientes:

**1.-** Por la prestación de servicios en el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u OCEX, dentro de los cinco años inmediatamente anteriores a la fecha de la presente convocatoria como técnico superior auditor, 1 punto por cada mes o fracción.

EL MÁXIMO ALCANZABLE EN ESTE APARTADO 1 SERÁ DE 10 PUNTOS

**2.-** Por la prestación de servicios en firmas privadas de auditoría dentro de los cinco años inmediatamente anteriores a la fecha de la presente convocatoria:
Como técnico superior auditor 0,50 puntos por mes o fracción.
Como técnico medio .- 0,25 puntos por mes o fracción.

**3.-** Por la prestación de servicios en la Administración Pública en calidad de Técnico Superior en áreas relacionadas con la fiscalización de cuentas (presupuestos, contabilidad, servicios de intervención, o similares) dentro de los cinco años inmediatamente anteriores a la fecha de la presente convocatoria 0,50 puntos por mes o fracción

LA PUNTUACIÓN TOTAL MÁXIMA ALCANZABLE, ENTRE LOS APARTADOS 2) y 3) ANTERIORES SERÁ DE 9 PUNTOS.

**4.-** Por haber superado en su totalidad pruebas selectivas en cualquier Administración Pública u OCEX, destinadas a proveer por el sistema de oposición o concurso/oposición plazas de Técnico superior: 2 puntos por convocatoria

LA PUNTUACIÓN TOTAL MÁXIMA ALCANZABLE, EN ESTE APARTADO 4) SERÁ DE 4 PUNTOS

**5.-** Cursos de formación relacionados directamente con el trabajo de los puestos que se tratan de proveer se valorarán:0,02 puntos por hora de formación relacionada con las materias de auditoría de cuentas y administración pública.

LA PUNTUACIÓN TOTAL MÁXIMA ALCANZABLE, EN ESTE APARTADO 5) SERÁ DE 6 PUNTOS

**6.-** Entrevista con el candidato: 1 punto

**7.-** Conocimientos de euskera:

A quienes acrediten el perfil 3 ó superior, o titulación equivalente, se les otorgará una puntuación de 6 puntos.

A quienes acrediten el perfil 2 ó equivalente se les otorgará una puntuación de 3 puntos.

A quienes acrediten el perfil 1 se les otorgará una puntuación de 1,5 puntos.

Las anteriores valoraciones de los perfiles no son acumulativas. Solamente será objeto de valoración la puntuación correspondiente al mayor perfil acreditado

**B) TRIBUNAL**

Presidente:
- Un funcionario/a auditor/a

Vocales:
- Un funcionario/a auditor/a
- Un funcionario/a auditor/a
.-Un funcionario/a auditor/a
.
Secretario/a:
- Un funcionario adscrito a la Secretaría General del TVCP.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# II. ERANSKINA
# ANEXO II

## ENPRESA ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN EDO EKONOMIA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUTAKO AUDITOREEN LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIAN ESKU HARTZEKO ESKABIDEA
## SOLICITUD PARA TOMAR PARTE EN EL CONCURSO PARA LA FORMACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE AUDITORES LICENCIADOS EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS Y/O ECONOMICAS

Norberaren datuak /Datos personales

| | | |
|---|---|---|
| 1. abizena / 1.er Apellido | 2. abizena / 2º Apellido | Izena / Nombre |
| ENA / DNI | Jaioteguna / Fecha de nacimiento | Telefonoa / Teléfono |
| Helbidea / Domicilio | Udalerria / Municipio Pk. / Cp. | Probintzia / Provincia |
| Ikasketetako titulua / Titul. académica | Ikastetxe haren izena / Ctro. obt. título | Amaiera urtea/Año finaliz. |

**AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN APORTADA:**

☐ NANaren fotokopia / Fotocopia del D.N.I.

☐ Lehenago emandako zerbitzuen egiaztagiriak / Certificados de servicios previos

☐ Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria / Acreditación perfil lingüístico

☐ Eskatutako titulu akademikoaren fotokopia edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izana egiaztatuko duen agiria. / Fotocopia del título académico exigido o documento que acredite haber satisfecho los derechos para su expedición.

☐ Curriculum vitaea / Curriculum Vitae

☐ Bestelako agiriak (adierazi) / Otros documentos (indíquese):

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| | |
|---|---|
| Izenpetzen duenak<br>ESKATZEN DU:<br>eskabide honetan aipatzen den lan poltsa osatzea xede duen deialdian esku hartzeko onartua izatea, eta, deialdirako onartzeko betekizunari dagokionez, kontuan har daitezela:<br><br>1.- Urtebetez ...............................-(e)n egindako zerbitzuak (............... zenbakiko agirian justifikatuak).<br><br>2.- Auditoretzako masterra (.................. zenbakiko agirian justifikatua).<br><br>(Bietako bat adierazi: 1. puntua, ala 2. puntua).<br>Hori ez da kontuan hartuko deialdirako merezimendu gisa.<br><br>Hein berean, adierazten du aurkeztutako datu eta agiri guztiak egiazkoak direla, deialdi hau arautzen duten oinarri-arauei jarraikiz.<br><br>................................n..............................................<br>(Izenpea)<br><br><br><br>Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko lehendakari jauna | La persona abajo firmante:<br>SOLICITA<br>Ser admitido para tomar parte en la convocatoria a que se refiere la presente solicitud, y en cuanto al requisito de admisión a esta convocatoria se tenga en cuenta:<br><br>1.- los servicios prestados durante un año en .............................que se justifican en el documento número .............<br><br>2.- el Master en auditoria que se justifica en el documento número........................<br><br>(señalar uno de los dos, o el punto 1 ó el punto 2) que no serán tenidos en cuenta como mérito para el concurso.<br><br>Asimismo declara, que son ciertos todos los datos y documentación aportada, de acuerdo con las Bases que rigen la presente convocatoria.<br><br>En....................................a........................................<br>(Firma)<br><br><br><br>Excmo. Sr. Presidente delTribunal Vasco de Cuentas Públicas |

Jakinarazten da eskatzaileak emandako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi hori tratatuko du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, hautaketa prozesua kudeatzearren. Identifikazio datuak eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko datuak IVAP erakundeari lagako zaizkio, alegatutako egiaztatze datuak hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erregistroan egiazta ditzan, eta, behar izanez gero, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proba presta eta gauza dezan.

Se informa de que los datos personales suministrados por el solicitante pasarán a formar parte de un fichero que será objeto de tratamiento por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el fin de poder gestionar el proceso selectivo y que los datos de identificación y los relativos a la acreditación de perfiles lingüísticos serán objeto de cesión al IVAP con el fin de que se verifique en el registro de acreditación de perfiles lingüísticos los datos de acreditación alegados y en su caso la correcta preparación y ejecución de la prueba de acreditación de perfiles.